

ZER
ALDIZKARIA

394n. zenbakia
2013 BAGILA

**Bizkaitarrei
Bizkaieraz**



www.euskerazaleak.biz • info.euskerazaleak@gmail.com


LANDAJUELA, Anton, VII.



Euskal eztia



Izadia zaindu V.



Euskalerrian euskeraz EUSKERAZALEAK

2013-2014 IKASTURTEA

BIZKAIERAZ 46. IKASTAROA IRU MAILLA ETA ALKARRIZKETA

Egunak: astelen eta eguasten
edo astearte eta eguenetan

Orduak: Goiz, arratsalde eta gabetan

Ordaña: 150 €

Izena emoteko tokia: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2
urrutizkiña 94 423 53 22
Bilbao 48001

Asiera: urriaren 7an

46. CURSO DE EUSKERA BIZKAINO 3 NIVELES Y CONVERSACIÓN

Días: lunes y miércoles
o martes y jueves

Horas: Mañana, tarde y noche

Curso completo: 150 €

Inscripciones: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2
Teléfono 94 423 53 22
Bilbao 48001

Comienzo: 7 de octubre

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogeitabost euro) kontu onetan:

**EUSKERAZALEAK
BILBAO BIZKAIA KUTXA
2095 0000 74 2000089615**

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguazu!
Ebagi orri onetan txarteltxu au, eroan BBKra eta ordaindu 30 €.
Ez dozu ezer be idatzi bear.
Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure errikoa.
Eskerrik asko!

Euskerazaleak

ASOCIACIÓN PARA EL FOMENTO DEL EUSKERA

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.

48001 BILBAO

Urrutizkina : 944 235 322

info.euskerazaleak@gmail.com

Laguntzaille



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Salla
Departamento de Cultura

ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

Diseinua, maketazioa
eta inprimaketa: Ibegrafik
www.ibegrafik.com

LANDAJUELA, Anton, VII.



Mezak, jaupak.

Katoliku aundien errian igande ta jaietan jaupak utsik barik. Eta mezaratu ezker, illik ziran gudarien aldez otoi egitea galerazorik, gogorrez artu eban, jaupa entzuten egoan nagusietariko batek, otoian izan zan apa katigua. Ordu areiktako gauzak olantxe izan ziran. Jaupara, jaupa entzutera naitaez eroaten ginduezan, da norberaren lagun urrekoen alde otoi egiten ez itxi. Ia lau illabete andi luzeetan olantxe izan gintzazan.

Egunak ondoegi eztakidazanarren, onan ziralta uste dot. Dagonillaren 28(?), italiarrak Santoña-Dueso-ratu ziran Irailaren 7an aldendu ziran.

Amalau suizkillistu ebezan Urrillaren amabostez.

Urrillaren 15-ean il ebezanak baiño aurrerago, galiziarra il eben españar ikurrinpean, eta gero batean Egidazu, Meabe goi salteko nagusia.

Bigarren onen eriotzak artegatu ginduzen, onen eskuak batuz odolez orbanduak ziralta usterik, eta gureak garbirik, beingo baten baretu gintzazan geienok.

Urriaren 14gn gauaz 14-k izan eben deia, 15gn goizean ilteko Erramon Azkue-k, Euskal Gudarosteko buru nagusiak, Ibarbia, Zabala, Markaida, Otamendi....Onein eriotzak azurmuntetan be, miñik andiena egin euskun. Nork uste alako bat? Arrezkero egunak arrankura andikoak genduzan.

Eriotzarako epaitua izan zanaren anai batek, berak ezkeindu eban bere burua anaia il ezegian, ezkondua ta umeen aita zalakotz edo. Jazo zanaren barririk estakit.

Egun birik bateko arratsaldez, ordu beteko astinaldia lurrai emoteko edo, baratzera ataretzen

ginduezan. Ordu osoa ilketari ekin, edo ta ez ekin, urrengo egunean len lez, bardin-bardin gengoan.

Barrurantz egiten gengozanean, bear eban lez ezebala egin eta narrua illundu arteko idizilkadak irabazi ebazan galiziar batek Bilbo-ra ekarriz gero Derion il ebenak.

Gaur egungo askorentzat umekeriak, aurkerak, iñosentekeriak tutuluskeriak daitekez. Dakitan obeto idazten ba nenki, izango neuka gatz eta piperrik gozoto dagidan, eta jakin ezak dakidana azaltzera beartzen nau.

Dueso-tik urrun eztiran tokien batzuetan lagun pillak itxirik, nonbaiterako bidean jarri ginduezan. Arrots-errian bein betirako eriotzara jausirik Azkue, Markiegi, Ibarbia, Zabala, Markaida, Otamendi ta besterik be. Amalau ildakoak emen:

EAJ alderdiko	2
EAJ Gudarosteko	2
ELA-ko	2
Errepublikano	2
Sozialista	2
Kumunista	2
CNT-ko	2



Eizta ona bai zan, erailketa ohea zan. Danak egozan ixilik, azkeneko orduetan ben ta gizonki. Agur biozkorrez gero arte.

Aitaturik dodazan il ziranen ondoan beste berrogetak arnas eta odol barik itxirik, non da noiz eta nolan amaituko genduan nekebidea ezgenkialarik, Santoñako itsasertzean gagoz, urrilla edo, azilla da. Esiturik gaukiez, arrañen jaki izango ote gara?

Agindu barrien zai alan gengoza, begiak beteko negarretan ama euskaldun bi urreratu jakuzan, norako bidea artzera goiazan jakin guraz. Gure erantzuna jasoteko astirik eztabe izan, arrapalo tajuzko begirakada ta, surpeko bizar zitaldun txankerreak axatu ebazan da, auek lako itz zatarrez:

“Aldendu zaiteze ama ezkongaien alabok, okotzpeko bularrok lurraraño jatsirik ikustea nai ez paduzue”.

Lau begiak lau iturri ebenik aldendu ziran, zotinka, burua eskuartean arturik.

Ordua etorririk, uraren azalean kulunka baketsuan diñardun Serna itxasontzira garoadiez 500dik gora gudai eriotzaren ezaugarririk garratzena aurpegian daroagunok. Ontziaren sakon-sakonean aurkitzen gara, nolan edo alan bakoitza beren eran.

Itxasoa bare-bare dago, geldirik goiazan ala ibilian gabiltzan, ezin igarri dogu, goiko olan tartean aizea sartu eitean zuloa iriki euskun artean, Deusto-ko zubi-besoa ongi etorria egiten agertu zan arte.

Bilbo-n gengoza inon ez toki onik ilteko, baiña obe da norberaren lurrean bi aldiz il, arrotzerrian baten baño.

Eguzkia, eguneroko ekiñari ekiñik, eta indarra galdurik, beraren amagana lo-egitera joanik dago, indar barriz ornitzera. Ortzietako argiaren dizdirarik ezta inon agiri.

Udaletxeko erreka ertzean ezegoan adiskide geiegirik. Zabalbideko aldapan gora bai ostera, etozan senar, senargai, neba ta anaiai, ixileko ongi etorria egitera, gosez begiak sakondurik eta zorrien aginkadak eta eztenkadak josirik etozenai.

Larrinaga-n gagoz, illunabarra etorrian diardu, bi-zi-leku barri onen orma barruartea illuna ta zikiña, gure poza, barriz, andi-andia da.





Geiagotan bein bere alkar ez-genduala ikusiko uste genduan lagun zar eta adiskide kutunak, uste-gabean besarkatzeko zori a izan dogu, zori baikorra biotzez basarkatzerakoa.

Illundu lako dago gauaren baltza, azken atsetan diardu egunaren argiak.

Txarritokia lako lekuan alkarren ganean lo, edo gaua emoteko berrogetalau lagun gintzazan, eta bart gaueko apari ziztriña egin genduan ezker, nire ortzak eta agiñak zeri edo ari ekin guraz ziralarik, ai nire poza! saguek aoan erabilitako ogi-koskorak aurkitu nebazan, baraua austeko koxkor egokiak.

Lenengo gaua igazirik joan zan egun barriari lekua eginik, eta emen egozan errikide danak besarkatzeko astirik ezean, Gondra ta G. Zuazo-rentzat, E. Ibarondo ta Tomas Gorostiaga-rentzat ziran.

Iru-lau illabeteko bizar baltz kirrua neukan, Urkiola-ko Andoni deuna bizerraz ikertu gaberik ez kentzeko asmoz, baiña bizar eta ule aguro zuritu ninduen.

Ogi-gosez eta barri-egarriz etorri ba nintzan, barriz eta albiste txarrez eta gaiztoz ondo ornidu ninduen: Timoteo Atutxa, seme-alaba gazteen aita, biotz-lupudun erritarrak gaitik il ebela.

Areatza-ko Meltxor Larrinoa eta Dima-ko Atutxa-k ordainbide bardiña izan eben. Artea-ko Pedro Abaskal-entzat bere, eriotza, emen gengoza-nean izan zan, onena. Zeru goitan izan bitez.

Giltzape ontako askatasuna, Dueso-koa baiño nasaigo zan. Gauetako orduetan geure tokia geunkan, egunezkoetan, ostera, alkarregaz emoten genduazan ara eta ona eta, batetik bestera, amai-ka txutxu-mutxu garratzez urrun eta gaitz ikusten genduanaren askatasunaren begira, Derio-ko illerria begi ta beti gogoan gendularik. Geure buruari geu gintzazan lor txarra emoten geuntzanak, eguneroko lorraren gazi mingotza. Eta gauean bakoitza txokoratzean eta agur egitean, gaurko ikusirik dogu, biariko Jaunak esango. Azkenez ete gagoz alkarregaz? Lo-koloskara giñoiazan.

Gelan lagun doguzan Primitibo Solaguren eta Juan Ormaetxe, Sukarrieta-n eta Ibaizabal-en guda sailletan buru izandako bide deia izan eben. Gaua zan, eta ordu artako deia zertzaz izan leiten zuzpertz eziñik doakiguz eta datorkiguz bat besteren atzetik orduak, izerdi larriak argi egiten euskula bekoki ta lokietan belaunak dardar doguz, arnas artzeko indarrik eztozu, norako bidea eroen jakin-miñez.

Emen azaltzen dotan au gabonillaren amargarren gauaz gertatzen da, eta egunak aintzin zurrumurrua zan, gudari gorriak eta eperdi baltzen artean trukea izango zala. Zerbait amets ez ziran sortuko gure bu-ruetan! Unerik laburrean egin genduan ametssezko ibillaldi au; espetxe laga, Derioko illerria betirako atzea emonik bertanbera itxi eta Francotarren ar-tetik urrundurik nonbaiten bizi. Sudur eta belarri zuloetan arrak egingo ete jakuzan bere, nabaitzen genduan. Eta ametskez gengozanean, emen non datorkuzan Durangoar biak arpegian poz-ikurri da eskuan bata besteari igurtzika. Españarren eskueta-tik Españan leporatu eutsien eriotz-epaia arindurik datoz. Askatuak izan dira eriotzaren lokarrietatik, biziko diran aldirako kateen menpeko ta doakebeak egin dabez da. Gure zenbait amets oraindik ez ziran loratu, biotz nasaigarria izanik bere, Durangoar bien arnas artze barria.

Illabete ontako 12gn usai txarreko aizeak puz da-gizka, kirioak artega doguz, egunaren argia illik dago.

13gn illuntze baltzean, azilla ziur askorik, aize ne-gargarritzkoa bere bideetan dabilkigu, lendik medar doguzan indarrak kili-kolotu naiaz.

14gn gauaren illuna oso baltza gertatzen jaku, erio-tzea gosez dabilkigu ta. Atzapar luzeak eta atzazkal makurrak aterik ate diardue gizon biziaren aragia-ren billa, jaki gozoaren lorratzetatik jarraituz. Koi-perik bageko ateen morrolluek atzerakada dagie burdin otsez, eta barrenean diranak belarriak adi jarri-rik, norentzat izango ete dan deia, dardar da-gie. Batzuek an, da bestetzuek emen aurkitu dabez bear izan dabezanak, eta ao-lazkerizko berba ga-rrantz eta bultzaka azken gauari agur egitera da-roez.

Kristo gurutzatuaren aurrean, osasunik onenean, eriotzaren besarkadaren azi diranak 7 dira, urka-mendirako. Derioko illerrian aurkitu dabez en-parauak zubia, bizi ontatik betikotasunera joango diran bidea Barrondo tar Imanol bigarren taldean izan da.

15gn eguneko argi-izpi goiztarrak, oraindik lo-ka-bietan gengozalarik, eriotzagaz borrokarik gogo-rrenean egoan gizon doakabearen ai! garratza ze-torkigun entzumenera. Barru-barrutik zetorkion ai! mingotzak, ezeukan bigarren airik. Bakarra zan eta, zer gertatu ete zan ba? Ezer eztakigu, geroak esango dausku, eta ona emen geroak diñozkuna.



Urkamendian izan zana-ri sama-azurra estuten izan dautsan urkagallua apurtu zan, eta erdi-illik egoan gaxoa kendu eben toki artatik, aldamenen zan osagilleak indarrez barriztatzen eta ornitzen ari da, arnasaren jabe dan errukagarria, tramakulu ikaragarria tajututen daben artean. Tramakulu barriztatua barrien barriz lengo lekuan jarri ondoren, ara daroai, len menperatu bageko gizasemea, eldu dautso barrirorik, estutu samaazurra eta, gorpukondar biurtu. Emen amaitu ziran lur onetako gizasemearen lanak. Ezta asetu urkamendia, egarritz da, odola nai dau.

42 eriotzeratuen artean zan baita be, Dueson gelakide neban galdakar Ormaetxea-tar Ander. Etzan elizkoia, kristau otza zan. Eriotza aurrez aurre ikustean baiña, eriotza besterik ez gogoan. Jaungoiko zale ta biozdun il zan, beragaz zirenak indarrez barrizten eta pozaz ornitzen. Gabonillaren 14tik 15erako gauean izan zan. Ume txiki biren aita eta emazte gaztearen senarra zan gure Ander, Goian Bego.

Arteko izan zan Larrañaga, eibartarra au, eta beragaz joan ziranak baño zori obeko, ala txarrago (?) izan zan gaitz jat asmatzen Larrañaga au, ba, ilteko deiaren begira gaua igarorik, goizean barriz gelaratu jakun itxura larrian, gau luzearen bigaramon goizean. Gizon biotz oneko, biotzbera zan gizonen bat ba zala bere biziaz arduratzen zala ta, larritasuna ta poza, biak ebilkiozan dantza nastuan. Berak uste eban laguntzarik ezeukan, eta bere lengusua zan Sarasketaren ondotoxoan eguna igarotzean, eta gaua etorri zanean, borreroen deiak jo eban belarran. Oraingo ontan betirako joan zan, egunezko orduetan milla ezbear eta estualdi adierazorik.



Zelako adorez joaten ziran

Sinistu eziña ba da de, egia gordin eta biribilla, onan zan: Ba ziran banaka batzuk umeari, emazteari, amai diadarka ta deika, betik gorañoko dardar-ikaraz eta negarrez izaten ziranak. Geienek batzuek, oster, bekokia goituz, begirtarteargi, ezpanetan irri-ar, bizarra mozturik eta soñekorik onena jantzirik ezteguen batera joyazala esan eikean, Euskadiri Gora ta Gora.

17gn gauaraño eldu gara, Egunezko jostaketak, alkarri adar joteak, eta itxaropen gaito ta onak, gauaren etorrerak zapuztu dauskuz.

Bakoitza beraren tokietara baturik gagoz. Txutxumutxuak eta keñuak nabaitzen doguz zori txarraren usainaz nasturik.

Betik gorako luzea ta andia Jose Elorriaga, gure nagusien geletatik etorrída eta, eta...eta... albiste txarrak diranean bein bere utsik egiten eztauana dogu. Datorren bakoitzean beraren begietara begirazten jartzen gara, danok. Geienok somatzen dogu, izan daikegun zori txarrena. Matazaria askatuz doakio, amuak ba daki nor izango dauan gau arteko arraiña.

Egunak eta egunak lenagotik erabagi genduan, ilteko zana baraurik, jakin arazo barik ez eukiteko deia izango eban ordu arte. Zelan baña, non eta nork alkartu indarrrik naiko, lagunari esateko aiña: «adiskide, eriotza deika dok, ago gerturik, emen izango dozak eta, saierreak ito eske».

Errioxarra ta koronela zan Azkarate, berarentzat janeziñak ziran tilliztaz gosea baretuten eustana Dueso-n, eta beingo batean bere billa etorriko zirala esan eustana, Santos Andini Elozegi.

Azkarate au etzan zarra, irurogeinbat urtetakoa edo izango zan, baiña soin nekatua irudian.

Lotarako kabitxoa egiteari emonik egoan, da noizean bein aulan iñoan: «Zer izan leitekean ezta- kit, baiña, susmo txarrak dotaz gau ontan». Eta Andinik lepoan jorik dirautsan. «Adiskide maite. Etzaitu odolak saltzen, ondo dabilkizu. Gau ontako aukeratua izan zara eta gerturik egon zaite billa datozkisunerako».

Gizon errukarriak begiak al ebazan beste zabal- durik, barri gaizto ta txarra omen eutsanari begi- ratzen eutsan arnasa zurrutada saka lez iruntsirik, giozontasunaren sentzuna galdu barik. Soñekoak kendu bagerik etzun zan azkanengoz gerturiko abi gogorraren ganera.

Bere gelakideak, danok etzan gintzazan, da, atearen morrolluaren kirrizkadaren begira gengozalarik, betirako joango zana bira izan zan, gure goibelta- suna ikustean indarrez bete ta sendotzen alegindu zana, bere burua baiño makurtuagoak zirudielako gureak.



Eskerrak anitz aldiz emon euskuzan euskaldun da Euskalerriri ain gizonki ta aintzakotzat artu genduelako lenen egunetik azken ordu-rarte. Euzkadi oni buruz, samin bat eroan eban beragaz; lenagotik eta sakonago, Euskalerrri au ezagutu eza zan.

Ordulariaren besoak gau-erdiko amabietan dagoz. Ixiltasunaren ixil-unea oin-otsez urratu da.

Izkillotuko daben gizonaren billa datozan saierreen izkia ezta motela, jan-edana ondo egiñak dirudie. Gure ateaurrean gelditu dira.

Giltza zuloan sarturik eta bira bi atzerantz emonik, iriki eta dei dagie Azkarate-ri, gertu daitela esanez, joan bear ebala ta. Bi ordu lenagotik gerturik egoan Azkarate. Jagi zan, gelakide danentzat besarkada maitekor eta gartsuena Andini-ri emonik, txairo eta biotzdun doakigu otsoen erdian.

Egun batzuetan bakea dogu, baiña bakearen izpirik iñork irakatsi eztauskulako edo, praka es-tutan gabiltz, lo nasai egiten eztozula.

Begi bat Derio-rantz, besteak Prantzia-rantz, alderdi biok ikusten doguz, 800 baiño geiago gara epairik estunenarenpekoak.

Bi alderdietan agintari, gorri ta zuriak, ezker eta eskumakoak gudari atzipetuen arteko trukea egiteko, ortan diardue, eta bitartean trukatzea etorriko dan arte, edo ta etorriko eztan arte, gure larri-estuak azkenik ez. Ez tximeldu ez igartu ez tira egiten-da.

Gorrien menpean diranentatik, gorrien oinpean baliran lez guzur-muzurrez ito gura gaitue, an ba, gosea ta egarria, gaixoa ta ezinbizia oi dira nagusi jaunak.

Baiña nik neurekautan, eta egitan, au diñot: leza-zulorik sakon da baltzenean, arripean bizi gurago dot, suge, kunkun eta sierpetartean, lurgartzak be arteko izanik, Jaungoikoaren orde-zko dirala diñoskuenakaz baiño.

(Jarraituko da)



Euskaldun eztea

Goragarria dogu
erlearen lana,
loreartean, bizkor,
egaz dabillena.
Ez dau gogoan artzen
lore edertasuna,
ezta nekegarrizko
bide luzeana,
ajola jako soillik,
ezti barriena.

Bizitza luzerako
bear da osasuna,
ta osasuna eukiteko,
bear odol ona.
Odol ona izateko,
garbi ta txukuna,
eztea dogu beti,
janik ontsuena,
bizi garan artean,
zainduko gaituna.


Eskerrik asko, zuri,
erletxu maitea,
duban damozulako,
gozozko jakia.
Zugandik, zorionez,
dogu ikasia,
euskaldunak izanaz,
euskera zaintzia,
euskera izan dadin
euskaldun eztea.



MUNETXE
Bil-2013-03-21



AFRIKA´KO
IPUIN/ALEGI
ELEFANTEA
TA LAGUN
TXARRAK



Arrokeria ta norberekeria sarritan ikusten dira gizartean eta arro agertzen dira. Ipuin onetan ikusiko dogu elefante errukiorra, ontasuna eta alkar laguntzea irakasten. Ikasi daigun.

Elefanteak, ieneak eta aramuak bidea alkarregaz egitera urten eben. Gaba eldu zanean afaldu eta lo egiteko geratu ziran. -Nik uste dot- esan eban ieneak- zuk elefante, adiskide orrek, afaria gertatu bear dozula, sendoena zara-ta.

-Bai- esan eban zur-aundiak-bide luzea daukagu egiteko eta guztiontzat izango da lana. Gaur nik, biar aramuak eta etzi zuk. Bai?

Ori esanda, itzi ebazan lurrean bere zorroak, atara ebazan lapikoa, uruna eta saltzea. Ordu-erdi geroago irurak afaltzen eben pozik suntuondan.

Goizean artu eben barriro bidea eta luzaro ibilli ziran.

Goseapur bat daukat- esan eban elefanteak- zuk, aramu orrek, ekarri zendun bazkaltzeko janaria, berbaz esan gendun lez.

Aramuak kendu ebazan bere gainetik zorroak eta asi zan bazkaria gertatzen.

-Eta saltzea? Non dago saltzea?- esan eban ieneak.

Aramuak zorroetara begiratu eban eta etxean itzi ebala esan eban. Orduan ieneak asarre berba egin eutson eta ez ebala balio ezertarako be eta obeto izango zala etxean bere eunen artean gelditu ba' litz- esan eutson aramuari.

Elefanteak ori ikusita, errukiturik esan eban:

-Neuk artuko dot saltzearen ardurea eta zuek gertatu egizue aragia. Eta landan etxun zan.


Ordu-erdi geroago inea aldarrika asi zan:

-Dana dago gertu eta saltzea da bear dan bakarra-. Elefanteari esan eutson bere berbea bete ezin ba'dau obeto egingo ebala etxean lupetz-artearen jolasten geratu ba' litz.

Barre egin eban elefante aundiak eta, bere oin lodi bat sutara luzatuta, koipe ona eta usaintsua emon eban. Aramuak, arroa zan lez, elefanteagana urreratuta bultzakada bategaz esan eutson:

-Zuk uste dozu zeu bear zaitudala saltzea egiteko?

Ori esan da bere oin mee bat urreratu eban surtara eta oiña erre egin zan. Ez eban gura bere makaltasuna aintzat artu eta beste oiña luzatu eban eta au eta gorputz osoa illentien artera jausi eta kizkaldu egin ziran.



-Ai ene, aramu adiskidea-,esan eban elefanteak- bere arrokeria izan dau galbide!

Irugarren egunean ienea isilik joian bidean eta ez eban esaten jateko ordua zanik, baiña elefanteak gogoratu eutson berak gertatu bear eballa afaria.

-Parkatu egistazu,elefante jauna,- esan eban- baiña ain min aundia emon daust aramua ilteak ze, ez dot artu bear danik ezer be.

-Guzurti bat zara zu!Neuk ikusi zaitut bart dana zeuk jaten.Ez zendun gura afaria biontzat izatea?

Ori esanda, bere zorrotik uruna tea bear dan dana atera eban.

Emen dakazuz oneik! Gertatu egi zu afaria ni uguztera, baiñatzera, noan artean.

Ieneak bere eskuetan ainbeste gauza ikusita, egin eban sua beingo baten, gertatu eban janaria eta, bere laguna biurtu baiño len, jan eta jan asi zan, urdailleko miñakaz lurrera jausi-arte.

Elefantea etorri zanean eta jasotakoa ikusi, laster esan eban:

-Arrokeria ta dana iruntzi-bearra, bizitza osoan dira kaltegarriak.

OLAZAR´tar Martin´ek+




IZADIA ZAINDU

EUSKAL TOKI~IZENAK

MUNDUAN ETA

EUSKAL EDESTIA V.



Liguria lurraldean, batez be Savona inguruan eta bere Iparraldean (Genobatik urbil): Aiona, Albissola, Ardola, Berri, Carcare, Olano, Orba, Ormea, Sabona, Varezze, etabar.

Ladinian (Tirol ta Trentotik ur): Agordo, Andraz, Arabba, Ardo, Arta, Gardena, Gares, Lasa (tirol), Maia, Mendola (Trentino), Padola eta abar.

Milanetik, erreka bi aldatzen dira: Lambro (euskeraz niebla esan gura dauana) eta Olona (avenaren lurraldea ?)

Frantziagaz muga egiten dauan UBAYE errekea / Ladinian: EGA ibaia / Dolomitaseko mendietan: Bai de dones'eko aintzira edo ur geldia. Aiarnola, Arlas, Arblatsch (Tz doñugaz), Atalalta, Cima de

Gana Bianca (euskeraz bardin), Ormea, eta abar, Alpe-seko mendiak dira.

Aran edo Ibar asko dagoz -ascaren amaieragaz, euskeraz bardin esan gura dauanak: Val di Anzasc-a, Val di Verzasca eta abar.

Lurralde orrean Izkuntz ta mintzadarren artean be sortzen dira bateratasunak: Asciola = acha (Euskeraz aizkora) / Astore = cernicalo (Euskeraz aztore) / Baita = borda (casa del pastor).

Txistuka esaten diran TZ eta Z geiago dira Euskerarenak orko izkuntz latinoarenak baiño.

Emen, derrigorrezkoa da aitatzea: Alpeetan, Aleman, Italiano ta Frantzes izkelki edo mintzadarretan berba egiten dala eta bai beste bost edo sei izkuntz geiagotan.



Adibidez: Romance, (Suizan % 0'7, 50.000 giza seme/alaba). / Ladino (aurrekoen mintzadarra dana eta Dolomitasen erdian 10.000 giza seme/alabak berba egiten dabena. Friuli (Austria, Eslovenia eta Italiaren muga 500.000 giza seme/alaba). / Occitano (Piamonteko lurraldean 200.000 giza seme/alaba). / Esloveno (Piamonteren mugan, Trieste eta Gorizian 80.000 giza seme/alaba).

Alpes eta Kaukasoren gertakizunetan ikusten da, mendi andien babesean izkuntz geiago bizi dirala eta euren nortasunak obeto zaindu.

Alpes eta Euskal mitolojian be, antzeko gauza asko daukiez artean.

Italian beste toki izen batzuk: Ligurian: Venasca. / Genovan: Benasco / Pavian: Beaschi. / La Chappelle: Benêche. / Vaucluse: Venasque. / Naples ta Kampanian: Ausona ta Liberi. / Salermon: Orria. / Potenzan: Anzi, Abriola, Banzi eta abar.

Siziliari buruz, garrantzizko gauza da, 25etik 101era bizi zan Silio Italiko olerkariak esan ebana:

Siziliako alor edo soroak⁽¹⁾ leenengo landu ebezanak Oñamendi edo Pirineosetik bera joan zirenak zirala eta euren lurraldearen erreka aipatzea bearrrezkoa izanda ezagutzen ulertu dagien Zicanos zirala esan eben.

Zikano berbea, baleike Oñamendian⁽²⁾ dagon Zinka ibaiaren izena izatea. Ez dagoz ziurtasun guztiagaz.

7.6.– Eskozia, Gales, Irlanda ta Inglaterran Euskerazko toki izenak (Kromañoien ezurrezko ondar asko dagozan tokiak direnak).

Zalantza aundiko berbak dira: -barri edo Berri adizkietan amaitzen diranak.

Landa berbea adibidez (nai ta Keltiar berbea be ba dala gogoratu) edo Irlandan Gara ibaia.

Eskozia eta Irlandaren meaguneko lurretan: Carrick berbea (Karr=piedra) edo Scoth (-sk doñuan, eusko, ausko edo basko lez) ta Glasgow (gasko doñuan).

(1) Alor edo soro'ak = campo de cultivo. (2) Oñamendian = Pirineos.

7.7.– KAUKASO´an:

Zalantzazko berbak eta sinisgabekeria artu bear diranak dira Georjian adibidez: Gorbeya (Bizkaia ta Araba bitartean dagon mendi ederra lez). Eta Armenian: Ararat mendia (Araba, Gipuzkoa eta goi aldeko Nafarroaren bitartean dagoan Aralar mendi eta edo mendi besanga lez). Edo Gora (lurralde orrein izkuntzan Montaña esangura dauana eta Euskeraz Arriba).

7.8.– BEREBER inguruan:

Zalantzazkoak dira: Magdaleniense garai alditik datoza berbak “-barri” abotsean amaitzen diranak, adibidez: Sugabarri, Zuchabarri (Ptolomeo) edo Succ-bar (Pliniok). Eta beste batzuk, euskal toki izenak osotzeko ekarten dauan adizkiakaz⁽¹⁾, adibidez: -Gar)a (altura): Garb, Garian, Gardaya eta abar”.

7.9.– Karl Bouda Aleman (1.901ean Anburgon jaioa ta 1.979an Erlangen il) Euskalaria eta Errusiaren izkuntzan berarizkoak (especialista) esaten eban.

Euskerea ta Siberiako izkuntz artean, urbilleko abotsak aurkitu edo argiratu (descubrir) egin ebazala: Argi ta Yrgi (luz) berbaren artean bezala, Bele (cuervo), Lepo (cuello), Gurdizka (carreta), Elur lera edo Elur narraren (trineo) artean adibidez.

Eta berarizkoen (especialistas) artean esaten dabe: Euskerea ta Uraleseko izkuntzarekin: Fines, Ungaro eta Siberiako Obi ibaiaren ibarrean bizi diran errien fino edo sendi ungriara (Uraletako izkuntz ugarien artean adar nagusia dana), Suomiera (Finlandiako erriaren izkuntza), Laponiera, Ungariera ta abar Ostia´ren izkuntzakaz, kidetasuna dagoela.

Mitxel Morban, Timo Riiho eta Maria Teresa Etxenikek be ikertu ebezan ditekezen orreik eta iztegiko zenbaketari bidearen emonak beti izan ziran %tik 5 baiño gitxiago.

A ta guzti euren esana: Euskerea, Uralo Altaiko izkuntzakaz senidetuta dagoela da.

7.10.– Mikel Iriondo antropologo edo giza iztilariak.


Amerikan Journal Physikal Anthropology aldizkarian esaten dau (2.003an Urrillaren 13an Diaro Vasco´k batu ebana): Euskaldunak Europeoakin, naike berezitu egiten dirala.

Bere eritzian, orube (asentamiento) edo lur jabetasun orrein lenaldi edo antziñatasuna adierazten dau.

Eta azaldu leiken gauzea dala:

Europeoak, Euskaldunak baiño geiago nastu ziralara, orain 5.000 edo 7.000 urte Ekialde Erdetik erri aldan etorri ziran lur lantzaille edo nekazari ta abelzaiñarekin.

Teknika edo trebetasun orreik Euskalerrira, geiago eldu ziran Jakintzazko trebetasuna-ren artu emonetik, endak nastu bidetik baiño.



(1) Adizkiakaz=elementos verbales.



Eta orren itzulpena: Euskaldunak jendekuntz ta izkuntz jakitean, Europan Indoeuropeizatuta ez gagozan azkeneko bakar lekukoak garala esan nai dau.

Mikelek eritzi au nabarmentzeko: Mundu oneitan, dana dala besterekiko edo besteganakoa⁽¹⁾, Ludi onen gizakumeari zeozer bereizgarritzen ba dautsoelako, artean nastutako trebetasun edo gaitasuna dalako. Eta euskalerritik, europatik bezala, danak aldatu dirala esaten dau.

7.11.- Gandiak idazle edo asmalari Arjentinarrak.

Geiago esaten dau: Euskalerria, Europako erri zarrrena dala. Bere izkuntza: Kaukasotik Atlant Itsasoraiño eta Afrikatik Europaren Iparralderaiño Paleolitiko ta Neolitiko garai artean berba egiten zala. Eta Ario edo indoeuropeoak, Etrusko, Ibero eta antxiñako edo lenaldiko beste erri batzuk, Euskaldunak baiño geroagokoak dirala, baieztatzen dau.

(1)Besteganakoa=relativo.

7.12.- Bigarren zatian, Europaren gizarte auziko (cuestiòn social) edestian sartu orduko, aurkeztu daigun: Europa, Asia eta Afrikaren gizarteak, zelako antolamenduan geratu ziran egokituta.

Pleistozeno aldia: 2.000.000 1.800.000 urtetan asi eta orain 11.000 urte amaitu zala.

Paleolitiko aroa: Iru alditan banatzen da: Be Paleolitikoa K.a. 1.000.000 urte inguruan asi ta, 150.000 urte ingururarte.

Erdi Paleolitiko aroa: K.a. 150.000 urte ingurutik 40.000 urte ingururarte.

Eta Goi Paleolitiko aldia: K.a. 40.000 urtetik 9.000 urte ingururarte.

Oso luzea izan zan aroaldi au eta bitartean ainbat giza seme bereziko mota sortu eta galdu ziran, orain 30.000 urte Omo Sapiens agertu arte.

Mesolitiko aldia: Paleolitiko ta Neolitikoaren aldi artekoa da eta Europaren edesti aurreko aroa, orain 10.000 urte ingururarte.

Europa aldi orreitan, ainbat epeldu zan eta Omo Sapiens giza, eizan egitez gain, zitu, bii, ale edo fruituak batzen asi zan.

Neolitiko aldia: Mesolitiko edo Epipaleolitiko eta Tupiki edo Brontzezko aldiaren artekoa da.

Omo Sapiens aldi oneitan, arrapari uts izatetik ekoizle, egille edo sortzaille izatera aldatu zan eta orren ondorioz bizi leku tinko edo iraunkorretan asi ziran bizitzen eta len iriak sortu ebazan.

Beste trebetasunezko aurrerapen aundiak be asi ziran artzen eta batez be arria lantzeko erabide aipagarrienak.

Neolitiko aldia Ekialde Urbillean, orain 9.000 urte asi zan eta Europan 6.000 urte inguru.

Omo Sapiens: Afrikan sortu zan eta leen euki eben izkuntz ta euren jakintza oituratzeko ekanduzko oiñarri bidetik asi ziran Asia ta Europatik zabaltzen, Würm deritson izotz aldian.

Kromañon giza eta euki eben leen-izkuntza: Frantziaren Dordoñako erri inguruan (Tursac) Eyzies-de Tayaken Madeleineko arpe edo aitzuloan⁽¹⁾ aurkitu ziran orain 30.000 urteko Kromañon gizaren azurrai esaten jako.

Kromañon giza onek, jakin eban otzari aurre egi ten eta bera agertu zanean aurreko Neandertalak euren artean ezereztu egin ziran eta sortu zan giza mota au izan zan Asia ta Europatik zabaldu zana gaur arte, bere leen Euskerazko izkuntz azturan.

Atutxa'tar Paul
Zornotza'n 2.013'an Urtarrilla'ren 15'ean

(1)Ortik dator Auriñaciense edo Magdaleniense Goiko-Paleolitiko aldian, Musteriense ta Soloutrense arteko denborak diranak eta Magdaleniense izena Madelein mendiko aitzuloaren izena ipini eutsuelako



Euskaldun barrientzat ikasten

Sudoku

6						3		7
		7	9		2			
8					7			
		4					9	
	3	8	6	7	1	4	5	
	6					8		
			5					9
			3		4	2		
2		5						1

1	3	6	8	9	7	5	4	2
2	4	5	7	9	8	6	3	1
3	8	1	5	2	6	7	4	9
4	9	4	7	6	7	4	9	3
5	7	4	2	4	5	9	8	7
6	9	3	8	6	7	1	4	5
7	4	5	2	1	4	5	2	9
8	5	3	1	6	7	9	2	4
9	2	9	8	4	5	3	1	7

	8		9		5		2	
	7	6	8		2	9	4	
5			2		3			6
		9	4		8	2		
2			7		1			4
	3	5	6		4	1	7	
	2		5		9		3	

4	9	1	3	8	7	5	6	2
6	2	7	5	1	9	4	3	8
8	3	5	6	2	4	1	7	9
2	6	3	7	5	1	8	9	4
7	1	9	4	6	8	2	5	3
5	4	8	2	9	3	7	1	6
1	7	6	8	3	2	9	4	5
3	8	4	9	7	5	6	2	1
9	5	2	1	4	6	3	8	7

ARPIDETZAKO TXARTELA

ZER aldizkaria artu gura dot eta bialdu egidazue zuzenbide onetara:

..... tar

..... kalean (auzoan.....) zenbakian

..... errian, errialdean (probintzian)

Arpidetza ordaintzeko diru-etxera (bankura) bialdu ordain-txartela,

an daukadan zenbakidun diru-kontura.

ZABALDU DAGIZUN “ZER”. Arpidedun bakoitxak billatu begi beste bat!

**Ikusi mendizaleak
baso eta zelaiak,
mendi tontor gainera
igon bear dogu.**

**Ez nekeak, ezta bide txarrak
gora, gora Euskalerria.
Gu euskaldunak gara
Euskalerrikoak.**

**emen mendi tontorrean
euskal lurren artean
begiak zabaldurik
biotza erreta.**

**ain ederra, ain polita da ta,
gora, gora Euskalerria.
Gu euskaldunak gara
Euskalerrikoak.**

Elorrio (Argiñeta)